



LAUDIOKO UDALERRIAN KALEAN SALTZEA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA

HITZAURREA

Establezimendu komertzial iraunkorretik kanpo egiten den salmenta Euskadiko Udaletako herri kulturaren oso sustraituta dagoen salmenta era bat da, gaur egun, gorabehera ezberdinengatik, garrantzia handia hartu duena, hasiera batean zeukan kontzepzioa, hau da, banaketa komertzial egonkorren formula ordeztu eta osagarria, gaindituz.

Geure udalerrian usadiozkoa da urteko ostegun oro egiten den azoka, kaleko saltzaileentzako postuekin eta zonaldeko nekazarietzako gordetako espazioarekin. Gainera, eta bakanago eta oso noiz behinkako izaeraz, auzoetan jaiak, tradiziozko feriak, herri- edo artisau ekitaldiak direla-eta, kaleko salmenta motaren bat ere gauzatu da .

Salmenta ez egonkorak, kaleko salmenta izenez ezagutzen denak gero eta garrantzia handiagoa hartu duenez, exijitzen du neurriak hartzea garantizatzeko batetik, lehiakortasun aske eta leialaren marko barruan jarduera hauek gauzatzea eta bestetik, kontsumitzaileen bidezko eskubideen errespetua eta bermea, zein hauen osasuna eta segurtasunaren babesa, eskaintako ondasun eta zerbitzuen kalitatea segurtatuz.

Asmo honekin landu da honako kalean saltzen aritzeko prozedura eta baldintzak arautzen duen Ordenantza hau. Eta guzti hau indarrean dagoen araudia betetzeko, hain zuzen ere, gaur egungo Merkatal Jarduerari buruzko maiatzaren 27ko 7/94 Legea.

ATARIKO TITULUA EZARPEN ESPARRUA.

1. Artikulua: *Xedea edo objektua eta ezarpen esparrua.*

Ordenantza honen helburua da arautzea kaleko salmenta Laudio udalerriaren barruan.

2. Artikulua: *Kaleko salmenta. Kontzeptua.*

Kaleko salmentak dira establezimendu komertzialetik kanpora era ohiko edo aldian aldizkoan jarduera honetan aritzen diren pertsona fisiko eta juridikoek egindakoak, postuetan edo instalazio desmuntagarrietan zein ibilgailuetan. Kaleko salmentan aritzeko udalaren baimena behar izango da.

3. Artikulua: *Kaleko salmenta motak.*

Ordenantza honetako aplikazio eremu barruko kaleko salmenta izango dira honako hauek:

- a) Aldioro egiten ohi diren azokak, tradiziozko izaerakoak zein berriak, espazio edo leku zehatz eta jakinetan kokatuta daudenak. Azoka horiek, gehienez ere, astean bi egunetan zehar egin ahal izango dira.
- b) Feriak, jaiak, herri- edo artisau-ekitaldiak direla-eta aukera horretarako instalatutako azoka bakanak.



- c) Kamioi-dendetan edo bide publikoan instalatutako postuetan egiten den salmenta, behar diren egoera eta baldintza zehatz eta berezietan baimendu ohi dena.

4. Artikulua: *Aldiroko azokak leku zehatzetan kokatutakoak.*

- 1.- Azoka mota hau, funtsean, hauxe da: tradizioz edo ezarpen berriko izaeraz eta aldiroko finkoz, Udalak zehaztutako bide publikoko espazioetan gauzatzen den kalean saltzen ari diren salmenta-postuen kontzentrazioa.
- 2.- Laudio Udalerrian, izaera honetako azoka da, aste oro, ostegunetan 8:00 - 14:00 arteko ordutegian, Abasto Plazan egiten dena. Osteguna jaieguna bada, bezperako asteazkenean egin ohi litzateke, leku eta ordutegi berdinez. Edozein kasutan ere, aipatu den azoka hori egin ahal izatea etenda geratuko da abuztuko jai patronaletan eta, inguruabar bereziak direnean tarteko, behar den legez oinarritutako eta arrazoitutako horrexetarako emandako Alkatetza -Lehendakaritzaren Dekretuan adierazitako egunetan zehar.

5. Artikulua: *Alazoko, bakaneko eta aldian aldiko azokak.*

- 1.- Aldiroko izaera barik egiten direnak dira, herri, probintzia, autonomia edo estatu izaerako feria edo jai gertaera edo herri izaerago gertakari edo bestelako udaldiko feria edo estatu-, probintzia- edo autonomia-jaiegunak direla-eta, hala nola kirol, kultur edo jolas izaerako ekitaldiak direla-eta, baina soil-soilik horiek dirauten bitarteko denboran.
- 2.- Modalitate honetan ere sartzen dira artisau azokak. Azoka horiek dira udal baimena duten pertsona titular guztien jarduera eta egintza espezifiko eta komun babilan babesean sortutakoak. Aparteko izaera dute eta kokapena, aldirokoa eta salmenta postuen kopurua Alkatetzak erabakiko du, Udaltzarreko Osoko Bilkurarako Gaietarako Informazio Batzordearen iritzia entzun ondoren.

Azoka hauetan baimentzen dena da salmentan aritzen den pertsonak, berak edo beste batek, zuzenean landutako artisau produktuak saldu ahal izatea. Salgaiak, kasurako: larrua, zeramika, margoak, eskultura, apaingarriak, e.a.; halaber, nekazariak eurek ekoizitako urte-saso eta denboraldiko produktu elikagai galkorrak zuzeneko salmentan salduko dituzte, beti eta elikagaien Osasun arloan indarrean dagoen araudia betetzen badute eta ez baldin badago debekatuta edo mugatuta.
- 3.- Ez-ohiko azoka hauen barruan, baimendu ahal izango da kokapen ez finko eta izaera desmuntagarria duten postuetan bere egituragatik komenentziazko elementu mugikorretan egindako salmenta hala nola gurdi, kamionetan edo antzerakoetan egindako salmenta, edo feria, jai, herritar edo artisau ekitaldien arabera produktua saltzeko.

6. Artikulua: *Bide publikoan instalatutako kamioi-dendetan edo kokapen finko eta izaera desmuntagarriko ez finkodun postuetako salmenta.*

- 1.- Debeekatuta dago udalherri osoan (herritarrengan sustraituta dauden gaztainak erretzeko, txurroen eta antzeko postuena izan ezik, beti eta titularra udalherriko auzokidea bada, edo aurreko artikuluan aurreikusitako noiz behineko azoketan



baimenduena izan ezik).

- 2.- Izaera finkoa duten eta desmuntagarriak ez diren postuak, hala nola diren egunkariak, aldizkariak, ONCE eta aldiroko argitalpenak saltzeko postuak, araudi espezifikoan xedatutakoaren arabera arautuko dira.

7. Artikulua:

Edozein modutan ere, ez da kontutan hartuko kaleko salmenta lege:

- 1.- Etxerik etxeko salmenta.
- 2.- Urrunetiko salmenta.
- 3.- Noiz behinkako salmenta.
- 4.- Xede horretarako prestatutako makina bitartezko salmenta automatikoa.

8. Artikulua:

Ordenantza honetan aurreikusitako suposatu eta kasuetatik kanpo, kaleko salmenta debekatuta dago udalerrri osoan.

9. Artikulua: *Salbuetsitako perimetro urbanoa.*

- 1.- Salbuetsitako perimetro urbanoa da kaleko salmentarik egin ezin daitekeen esparrua, Eusko Legebiltzarrak onartutako merkataritza jardueraren araudi arautzailean ezarri eta xedatutakoarekin bat erredaktatu den Ordenantza honen eranskinean doan planoan eta dokumentuan zehaztuta dago.
- 2.- Salbuetsitako perimetro urbanoa Laudioko Udalak onartu du, Arabako Merkataritza Ganbera entzun ondoren, zonaldean dagoen merkataritza ekipamenduaren batz bestekoa eta populazioaren kontsumo ahalmenarekiko egokitzapenaren arabera.
- 3.- Debeku honetatik kanpo geratuko dira eskumena esleituta duen Eusko Jaurlaritzako dagokion Sailak erregelamenduz zehaztuko dituen, feria, jaiak, ekitaldi herritarrak eta tradiziozkoak direla-eta ospatu ohi diren azokak. Kanpo geratzeko erabaki hori hartuko da alde zuzenetik Udala eta udalerriko merkataritza eta errepresentaziorik handiena duten kontsumitzaileen elkarteak entzunda.

I. TITULUA

10. artikulua: *Salmenta produktuak.*

- 1.- Alkatetzaren Dekretu bitartez baimena eman daiteke oihala, oinetako, osagai, musika, artisautza eta antzeko produktuak kalean saltzeko.

Alkatetzaren Dekretu bitartez ere ebatziko da aipatu diren kategoria bakoitzeko jardueradun zenbat postu izango diren eta horien kokapen zehatza. Alkatetza-Lehendakariak Dekretu bitartez alda dezake postu horien zenbatekoa eta sailkapena, beti ere interes publikoa eta herri onuraren arrazoiak bitarteko direnean.

- 2.- Hala, baimendu ahal izango da elikagai produktuak kalean saltzea beti eta produktu



horien salmenta kalean egitea indarrean dagoen araudiak ez badu mugatzen edo debekatzen edo eskumendun agintarien iritziz osasunarentzako arriskurik ez badute.

Baimenen jabeek zehatz mehats bete beharko dituzte merkaturatzen dituzten produktuen erregelamendu tekniko-sanitarioak eta gainerako araudi ezargarria ere.

Alkatetzak Dekretu bitartez ebatziko du postu horiek non kokatu, postu zenbatekoa, salmenta-produktuak eta dagokion baimenaren titularra. Alkatetza-Lehendakaritzak Dekretu bitartez alda dezake postu horien zenbatekoa eta sailkapena, beti ere interes publikoa eta herri onuraren arrazoiak bitarteko direnean.

- 3.- Xede horretarako, ezin izango dira saldu haragiak, hegaztiak eta ehizatu berriak, hozkailukoak eta izoztuak, arrain eta itsaski freskoak, hozkailukoak eta izoztuak, esne pasteurizatua, gazta freskoak, putxa (mamia, gaztanbera), esnegaina, gurina, jogurta eta beste esneki produktu fresko batzuk, pasteleria eta opil beteak edo goarniziodunak, pasta fresko eta beteak, antxoa ketuak eta gainerako erdi-kontserbak, baita eskumendun agintarien iritziz euren osagarri bereziengatik osasun-arriskua izan dezaketen gainerako produktu guztiena ere.

Hala ere, aipatu diren produktu horien salmenta baimenduko da eskumendun osasun-agintarien iritziz hozkailu-instalazio egokiak eduki eta produktuak behar den legez ontziratuta badaude.

Urte sasoiko elikagai produktu galkorrak saltzeko eta nekazariak euren produktuak saltzeko baimena eman daiteke, noizean behineko edo aldiroko azoketan.

Goiko 3. puntu horretan erabakitakoak ordezkoko aplikazioa eta ezarpena izango du harik eta arlo hau berariaz arautuko duen araudi zehatzaren ebazpena eman arte. Hori bada kasua, azken araudi hori oso osorik aplikatuko da.

11. artikulua: *Salmenta postuak.*

- 1.- Salmenta postuen zenbatekoa, horietako bakoitzean saltzen diren artikuluen adierazpenarekin batera, postuen zabalera handiago edo gutxiagoko neurriak eta bestelako baldintzak Alkatetza-Lehendakaritzak ebatziko ditu bideragarritasuneko ahalmen teknikoen eta udalerriko beharizanen arabera eta horiekin bat.
- 2.- Baimenen tituludun jabeek euren instalazioak doitu behar dituzte adierazitako baldintzetara, kontuan izanik, dena den, erraz garraiatzeko instalazio desmuntagarriak izan behar direla eta segurtasun, osasun eta jendaurreko itxura oneko baldintzak bete behar dituztela.

Edozein kasutan ere, saltokiak instalatu behar dira beheko bazterrak 2,20 metroko altuera gainditzen duela. Edozein elementu finko edo mugikor 2,20 metroz beherako altueran kokatuta badago, zoruraino luzatu behar da plantan proiektio guztia eta handienarekin.

- 3.- Udalak, ohiko Azokaren funtzionamendu eta kontrol egokia izateko, eskalako plana edukiko du, bertan islaturik geratuko da postu guztien banaketa zenbakitua. Zenbaki horiek emandako baimen eta agirietakoekin bat etorriko dira.



12. artikulua: *Elikagai produktuak kalean saltzeko postuen baldintzak.*

Elikagaiak kalean saltzeak duen izaera berezia kontuan izanda, saltoki postu guztietarako Ordenantza honetan ezartzen diren baldintza orokorrez gainera, mota honetako produktuak saldu ohi dituzten postuek bete behar dituzte merkaturatutako produktuen eta instalazioen erregelamendu zehatzetan erabakitako baldintza higieniko-sanitario eta gainerako izaerakoak.

II. TITULUA

KALEAN SALTZEN ARITU AHAL IZATEKO

I. KAPITULUA

Kalean Saltzen Aritzeko Betebehar eta Baldintzak.

13. artikulua: Laudioko udalerrri barruan kalean saltzen aritzeko honako hauxe behar izango da:

- 1.- Alta emanda egotea Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergako dagozkion epigrafeetan eta zerga ordainduta edukitzea.
- 2.- Alta emanda egotea dagokion Gizarte Segurantzako erregimenean eta kuota ordainduta eta egunean edukitzea.
- 3.- Merkaturatutako produktu eta instalazioei buruzko erregelamendu espezifikoek ezarritako baldintza eta betebehar higieniko-sanitarioak edo bestelako mota edo izaerakoak betetzea.
- 4.- Udal baimena izatea.
- 5.- Dagozkion prezio publikoak ordaintzea.
- 6.- Atzeritarren kasuan, dagozkion Egoitza- eta Lan-baimenak lortuta dituztela egiaztatuko duen dokumentazioa edo bertan egon eta lan egiteko baimena emango dien beste edozein dokumentazio izatea.

II. KAPITULUA

Udal Baimenak

14. artikulua:

Baimenak emango dira alde zuzenetik interesdunak Udal Korporazioko Alkatetzari zuzendutako eskaera aurkeztu ondoren. Eskaeran honako hauxe jasota geratu behar da:

- a) Eskatzailearen izen-abizenak.
- b) NAN edo AIZ eta IFK zenbakia.
- c) Helbidea, dagokion biztanleen erroldako ziurtagiria erantsita.
- d) Instalazioen eta salgaien deskribapena, Laudio Udalak azaldu eta eskainitako artean aukeratu duen sailkapena adieraziz.
- e) Lekua, data, ordutegia, edo hala bada kasua, zein aldiroko azokarako eta kokapen finkorako baimena eskatzen duen.
- f) Zenbat metro okupatu behar dituen.

Behin betiko onarpeneko testua.- 2009 iraila



- g) Pertsona juridikoen kasuan, gainera, aipatu behar da jasota geratzeko horren kontura baimena erabiliko duen Erakundeko enplegatu edo bazkidearen izena, egoitza eta NAN.

15. Artikulua:

Aurreko artikuluan aipatzen den eskaerarekin batera, eskatzaileak aurkeztu behar ditu dokumentu hauek:

- a) Fotokopiak: NAN, AIZ eta norberaren kontura lan egiteko baimena eta atzerritarrek egoitza- baimena edo beste dokumentazioren bat baimentzen diona bertan egon eta lan egiteko.
- b) Gizarte Segurantzako kotizazioen azken ordainketa erreziboa eta Alta.
- c) Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergako azken ordainketa erreziboa eta Alta.
- d) Elikagai produktuen kasuan, elikagaien manipulatzaile txartela eta osasun arloko dagokion Teknikariaren txosten idatzia, elikagai produktu horiek indarreko Erregelamendu Tekniko eta Sanitarioak betetzen dituztela eta saldu egin ahal direla jasoaraziko duena.
- e) Jabearen edo titularraren izenean jardueran aritzeko baimenduta egon ahal diren pertsonen nortasuna egiaztatzeko dokumentazioa.

III. KAPITULUA

Prozedura.

16. Artikulua:

1.- Eskaera eta dokumentuak jaso ondoren, eskumena duen udal organoak aztertuko du aurkeztutako dokumentazioa, eta hala badagokio, eskainitako derrigorreko txostenak eta, dena ondo badago, eskaera dagokion itxaron-zerrendan sartuko du.

2.- Saltoki postuak esleitzeko sistema:

Lehena. **Abasto Plazako, Ostegunetako Ohiko Azoka, (Aldiroko Azoka).**

A) 1.- Saltoki Postu Finkoak:

Aldaikoerreka Plazan dauden ostegunetako ohiko saltokietan esleiti beharreko salpostuen zenbatekoa, kokapena eta sailkapena Ordenantza honetako 10,1. artikuluan oinarrituta eta Alkatetza-Lehendakaritzaren Dekretu bitartez egingo da.

2.- Sailkapen hori finkatuta eta lizitazioan eskainitako salpostuak hasiera batean esleitura, eskainitako produktuen sailkapen kategoria bakoitzerako itxaron-zerrendak prestatuko dira. Halaber, kategoria bakoitzean egongo dira honako bi zerrenda hauek: , lehen zerrendan sartuko dira Laudion erroldatutakoak gutxienez ere bi urteko antzintasuna dutenak biztanleen erroldan eta bigarren zerrendan gainerako eskaera guztiak. Lehenespena zerrenda bakoitzean gauzatuko da eskaeraren Sarrera Erregistroko zenbakiaren hurrenkeraren arabera.

3.- Salpostu bat hutsik geratu bada, ordezkatzeko hurrengo arau eta erregelen arabera jokatu da:



- Bakarrik aukera izan dezakete gertatutako saltoki hutsunea gertatu den kategoriako itxaron-zerrendan sartuta daudenek.
- Ez da eskatuko gutxieneko antzinatasunik aipatu den itxaron-zerrenda horretan, esleipena gauzatzeko momentuan bertan azaltzen den edozein interesatuk esleipenerako aukera egikaritu ahal izanik.
- Eragindako kategoriaren barruan, lehenik, Laudion erroldatutakoei kontsultatu egingo zaie euren lehenespen hurrenkeraren arabera. Saltoki postua esleitzeko ezarritako baldintzekin bere adostasun erakutsi duen lehenengoari esleituko zaio hutsik dagoen saltoki postua. Adostasun hori idatziz aurkeztu behar izango da Herriko Etxeko Sarrera Erregistroan.
- Laudion erroldaratutakoen zerrendan sartutakoen arteko inork ere ez badu bere adostasunik adierazten, kontsultatu egingo da gainerako interesatuen zerrendan sartutakoen artean. Saltoki postua esleitzeko ezarritako baldintzekin bere adostasun erakutsi duen lehenengoari esleituko zaio hutsik dagoen saltoki postua. Adostasun hori idatziz aurkeztu behar izango da Herriko Etxeko Sarrera Erregistroan.

4.- Saltoki postuaren esleipena Alkatetza-Lehendakaritzaren Dekretu bitartez ebatziko da, non adieraziko den era espresatuz eta berariaz baimenaren titularra nor den eta baimena ustiatzeko gainerako baldintzak zeintzuk diren.

B) **Zonaldeko nekazarientzako gordetako postuak edo azalera** (Aira Eskualdeko herri guztiak eta Bizkaiko Probintziatik Arakaldo, Orozko, Arrankudiaga, Urduña eta Gueñes).

Dagozkion baimenen esleipenari ekingo zaio goragoko A) atalean adierazitako sistema berdina erabiliz.

Bigarrenena. **Aldian aldiko azokak . Abagadauneko Azokak.**

- - Baimendu beharreko postu eta pertsonen zenbatekoa ospatu beharreko ekitaldien (jaiak, feriak edo bestelako ospakizunak) antolatzaileek bakarrik proposatuko diote udalari ospakizuna izan baino gutxienez ere 30 egun naturaleko aurrekotasunaz, Ordenantzan zehaztutako eta aurreikusitako aurkeztu beharreko dokumentazioa aurkeztuko dutelarik baimenaren esleipendunei buruz.
- - Udalak zuhurtziaz erabakiko du Kultura, Kirola eta Jaietako Arloak eta, hala dagokion kasuan, eragindako Arloak proposatuta, Alkatetzaren Dekretu bitartez, zenbat postu eta baimendutako pertsonak nortzuk diren. Erabakia jaia, feria edo ospakizunaren antolatzaileei eta emandako baimenen jabeek jakinaraziko zaie. Baimenen jabeek eta titularrek Ordenantza Fiskalak markatzen duen prezio publikoa ordaindu beharko dute.

Hirugarrena. **Kokapen finko eta izaera desmuntagarria duten postuak (gaztaina erreak, txurroak eta antzerakoak).**



Jardunean hasi baino 30 egun lehenago aurkeztu beharko dute dokumentazioa. Alkatetzak erabakiko du baimena ematea zuhurtziaz. Ordenantza Fiskalak markatzen duen prezio publikoa ordaindu beharko dute.

17. Artikulua:

Dena dela, elikagaiak kalean saltzeko baimena eman ahal izateko eskumena duen agintaritzaren baiezko txostena beharko da, Ordenantza honetako 10.3 artikuluan aurreikusitakoaren kalte barik.

18. Artikulua:

Udal baimenak berariaz eta beren beregi azalduko du honako hauxe:

- - Baimenaren jabea eta bere izenean jardueran arituko diren pertsonen izen-abizenak.
- - Kokapen eta aldirokotasun finkodun azokan postuaren zenbakia, edo bere kasuan jardueran aritu ahal den lekua edo lekuak.
- - Baimendutako produktuak.
- - Jardunean aritzeko egunak eta ordutegia.
- - Okupatu beharreko azalera.
 - - Instalazioaren ezaugarriak.
 - Baimenaren iraungitze-data.

19. Artikulua:

Baimendutako saltzaile guztiei nortasun txartel bat emango zaie eta bertan adieraziko da:

- - Jabearen eta, baldin baleude, baimendutako pertsonen izen-abizenak. Halaber, baimen titularraren argazkia txertatuta edukiko du.
- - Salmenta egiteko baimenaren balio epemuga.
- - Baimendutako produktuak.
 - - Kokapen eta aldirokotasun finkodun azokan postuaren zenbakia, eta jardueran aritu ahal izateko lekua edo lekuak, egunak eta ordutegia.
 - Baimenaren iraungitze-data.

Identifikazio hori denbora guztian egon behar da eskatu ahal duen udal agintarien eskura eta esleitutako saltoki postuko ikusteko moduko begi-bistako lekuan ipini behar da. Saltokiko postuaren titularra ez den beste norbanako ezberdin batek salmenta egiten duen kasuan, eskatu egin ahal izango zaio interesatuari bere identifikazioa, bai eta salpostua ustiatzeko baimena erakusteko, bai titularra ez den beste norbanako ezberdin batek salmentan aritzekoa ere.

20. Artikulua:

Behin betiko onarpeneko testua.- 2009 iraila



Baimenek zuhurtziaz emandako izaera edukiko dute eta, beraz, udalak kendu ahal izango ditu emateko orduan ziren inguruabarrak desagertu direla-eta egoki irizten bazaio, interes publikoaren arrazoiengatik eta Ordenantza hau zein ezargarria den araudia ez betetzeagatik, horrek ez du sorraraziko inolako kalte-ordain edo konpentsazio beharrik.

Epe baten beraren barruan ezin izango zaio saltzaile bati kalean saltzen aritzeko baimen bat baino gehiago eman (urtekoa, ohiko azoketarako eta egun/orduko aldian aldiko azoketarako).

IV. KAPITULUA.- Udal Baimenaren Ezaugarriak

21. Artikulua:

Udalaren baimena pertsonala da eta inorengana ezina. Hala ere, baimena erabili ahal izango dute Gizarte Segurantzaren alta emandako jabearen ezkontideak, seme-alabek, eta enplegatuak. Edozein kasutan ere, baimenaren titularra ez den beste norbanako ezberdin batek baimen horren egikaritzean aritzeko, berariaz udalari jakinarazi behar zaio eta udalaren baimena behar da horretarako, une edo momentu oro errekeritu ahal izanik dagokion identifikazioa.

22. Artikulua:

Baimenak gehienik 5 urteko indar aldia izango du, aldian aldiko, abagada uneko azoka eta kokapen finko desmuntagarridun postuetan kalean saltzeko kasuetan izan ezik, izan ere, baimenetan horietan era horretako salmentan aritzeko egun zehatzak finkatuko baitira.

Aldiroko Ohiko Azokako postuetan (Abasto Plaza) epea bukatu ondoren baimen berria lortzeko, horretarako zehaztuko den epearen barruan, derrigorreko dokumentuak aurkeztu behar zaizkio udal agintaritzari.

Udalak sinestatu eta egiaztatu du bai eskatzaileak bai saltzeko produktuak lege baldintza eta betebeharrak betetzen dituela eta, hala bada kasua, beste 5 urteko baimena berrituko dio. Lehentasun eskubide hori egokituko zaie baimenaren titularrei euren baimenaren iraungitze momentuan eta aipatutako baimen horri atxikitako postuari bakarrik eta eskusiboki dagokiola.

Aipatu diren lege baldintza eta betebeharrak ez betetze kasuan edo emandako epearen barruan errekeritutako dokumentazioa aurkeztu ez bada, baimena baliogabetuta eta eraginik gabe geratuko da, Ordenantza honetako 16. artikuluan ebatzitako prozeduraren arabera salpostu horren esleipena eginez.

V. Kapituluak Baimenaren amaiera

23. Artikulua:

Baimenak arrazoi hauengatik iraungi eta amaituko dira:

- a) Eman deneneko epea amaitzeagatik.
- b) Titularraren ukapenagatik.
- c) Pertsona titularrak erretiroa hartzeagatik edo bere heriotzagatik. Aipatutako hori



bada kasua, ezkontide alargunak edo seme-alabek jarrai dezakete salmentan aritzen, beti eta hori bada beraien jarduera ekonomiko profesional printzipala eta egiaztatzen duten alta emanda egotea Gizarte Segurantzaren eta Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan.

- d) Baimenaren galera erakarriko duen zehapen, zigor edo isunagatik.
- e) Dagozkion tasak edota prezio publikoak ez ordaintzeagatik.
- f) Baimena lortzeko eskatutako baldintza betebeharren bat edo batzuk galtzeagatik.
- g) 4 astetan jarraian azokara ez etortzeagatik, alde zehar aurretik hori udalak justifikatua ezagutu barik.
- h) Ezezteagatik edo baliogatzegatik.
- i) Kokapen eta aldiroko finkodun azoka edo kaleko salmenta oro har udalerrian ezabatzeagatik.

d), e), f), g), h) arrazoiengatik amaierak behar izango du horretarako udal organo eskumena duenaren erabakia hartzea, alde zehar aurretik gehienez ere 15 eguneko epean interesdunari entzunez.

III. TITULUA

KALEAN SALTZEN ARI DIREN PERTSONEN ESKUBIDE ETA BETEBEHARRAK

24. Artikulua: *Eskubideak.*

- 1.- Laudioko udalerrian kalean saltzen aritzeko udal baimenaren jabe diren pertsonak honako eskubide hauek izango dituzte:
 - a) Baimenduta dauden saltzeko postuak okupatzeko.
 - b) Jendaurrean eta bake bidez egikaritzea, Udalak baimendutako salmenta jarduera, baimenean zehaztutako ordutegi eta baldintzetan.
 - c) Baimendutako jarduera gauzatu ahal izateko udal agintarien eta Udaltzaingoaren babesa eskatzeko.
 - d) Baimena eman deneko azoka ezabatze kasuan, udal baimen titularra den pertsonak lehentasun eskubidea izango du, amaitutako baimenaren baldintzetan ahal denean eutsiz, bere kasuan, ordezkaturiko duen azokan postu berri bat izateko.
 - e) Jarduera egikaritzeko baimena eman den azokako funtzionamendua hobetzeko erreklamazio eta iradokizunak aurkezteko.
 - f) Udalak identifikazio txartela eskaintzea baimen titularri.
 - g) Postuan jarrita salmenta jardueran aritzeko berak, bere ezkontideak eta seme-alabak, edo jarduera horretan enplegatuta dauzkan pertsonak, beti eta Gizarte Segurantzaren alta emanda badaude jabe titularren kontura. Baimena eskatzen den momentuan jakinarazi behar dio Udalari atal honetan aipatutako pertsona horiek nortzuk izango diren eta horiek saltzen aritzeko berariazko eta beren beregiko udal baimena behar izango da.



- h) Bere postua kokatuko den lekua ezagutzeko. Dena dela, azalera asfaltatu, zolatu, porlaneztatu edo ereindakoaren gainean ipini beharko da.
 - i) Salmenta baimentzen duen data Udalak ez aldatzeko, salbu eta jaiegun edo ekitaldi bereziren batekin bat datorren. Kasu horietan, Udalak jakinarazi egin beharko die alde zuzeneko benbora nahikoaz.
- 2.- Abasto Plazako ohiko aldiroko azokan saltzen aritzeko udal baimenaren jabe diren pertsonak eskubidea izango dute azoka horretan egoteko zonalde bat non kokatuko diren salmentaren ondoriozko hondakinak biltzeko ontziak, eta eskubidea izango dute, ahal den neurrian, azokak honako hauxe izateko:
- a) Iturri publikoa edo edateko uraren zerbitzua.
 - b) Azokako instalazioetan edo bertako inguruetan hurbil erabilera publikoko komunak.

25. Artikulua: Betebeharrak.

1. Kala saltzen aritzeko udalaren baimenaren jabe diren pertsonak behartuta egongo dira honako zehaztasunak betetzen:
 - a) Salmenta egin beharko da 11. eta 12. artikuluetan markatutako baldintzak betetzen dituzten jardura hau gauzatzeko garrantzizko errazak eta jardura mota honetarako egokitutako, instalazio desmuntagarri edo kamioi-dendatan. b) Postu titularrek begi-bistako lekuan ipini beharko dute udalak emandako baimena. Betebehar hori ez bada betetzen, hala nola baimenean zehaztu gabeko produktuak saltzen badira, kautela-neurri legez, salpostua altxaraztea erakarriko du, egoz dakiokkeen zehapen edo zigor espedienteari hasiera ematearen kalte barik.
 - c) Merkataritza jardueraren garapenean, saltzaileek bete egin beharko dute une oro merkataritzan aritu ahal izateko, merkatu-diziplinaz eta kontsumitzaile eta erabiltzaileak babesteaz indarrean dagoen legedia eta araudia, .
 - d) Saltzen duten lekuan ikusi ahal izateko lekuan erakutsiko dituzte kartelak eta etiketak eskaintako produktuen salmenta prezioak adieraziz. Saltzen dituzten produktuen prezioa erakutsi beharko da era zehatz eta okerrik ez izateko moduan, beti ere arlo honetan indarrean dagoen legedia betez. Granelean saltzen diren produktuetan edo salneurria elikagai produktuaren kantitate edo bolumenaren arabera zehazten denean, prezioa neurri unitate bakoitzeko adieraziko da. Halaber, bistan eduki beharko dituzte, ikusi ahal izateko moduan artikuluen existentzia guztiak, horietatik ezin izango dutelarik batzuk bereizi, aukeratu edo ezkutatu.
 - e) Postuen pertsona titularrak postu horietan bertan egon beharra dute azokaren funtzionamendu orduen bitartean, non behar den legez baimendutako pertsonekin lagunduta egon ahal izango diren.
 - f) Behar den bezala kreditatuko udal langile edo agintarien eskariz, saltzaileak behartuta daude eskatzen zaien dokumentazioa eskaintzera.



- g) Laudioko ohiko merkatuak, aldiro egiten dena, 8:00-14:00 bitartean funtzionatuko du generoen hustuketa eta zamaketa lanak ordutegi horretatik kanpo egin beharko direlarik. Saltzeko ordutegian zehar debekatuta dago ibilgailuen zirkulazioa azoka barrutik. Ordutegi hori aldatu ahal izango du Udaltzaren Osoko Bilkurak erabaki bidez, hala egitea aholkatzen edo eskatzen duten baldintzak eta inguruabarrak gertatzen direnean batera bilduta, erabakiaren berri interesdunei emanez eta herritarrei jakinaraziz Bandoen bidez.

Aldizkako azoken ordutegia baimena emango dien Alkatzaren Erabakian zehaztuko da.

- h) Saltzen aritzen diren pertsonen ibilgailuak ezin dira egon azoka barruan ezta saltzeko postuaren ondoan ere, aparkatu beharko dituztelarik horretarako egokitutako lekuetan edo leku honen ondoan.

Salgaiak zamatu eta huste lanak egiteko, azokako barru aldean aparkatu ahal izango dute lan horiek egiteko behar duten ezinbesteko denboran zehar soilik, baina, beti ere, 8:00-14:00 bitarteko saltzen aritzeko ordutegiz kanpo.

- i) Baimenen titular diren pertsonak errespetatu behar dituzte saltzen aritzeko perimetroak eta lekuak; horiek ezin izango dute inola ezta ere oztopatu sarrera leku publiko, pribatu edo establezimendu komertzial edo industrialetara. Ezin izango dira kokatu erakusleihu, trafiko seinale edo beste adierazleen ikuspegia eragozteko moduan. Ezin dira kokatu kale elkarguneetan, oinezkoen pasabideetan edo etxebizitza, komertzio edo ibilgailuentzako gordetako sarreretan ere, ez eta balizko larrialdi irteeretan pasabidea eragotzi.

- j) Kanean saltzen aritzen diren pertsonak behartuta daude informazioa ematen, ikusi ahal izateko moduko lekuan kartela jarri, helbideaz non atendituko diren, baldin badaude, kontsumitzaileen erreklamazioak. Dena dela helbide hori beti agertu beharko da salmentaren egiaztagirian edo erreziboan.

- k) Pisatu edo neurtu behar diren artikulak saltzen dituzten postuek arauzko baskula eta metroa eduki beharko dute.

- l) Halaber, elikagaiak erakutsi behar dira, ahal den neurrian, homologatutako kontenedore edo enbaseetan, produktu bakoitzaren ezaugarrien arabera egokiak izan beharko direnak.

- m) Salmentan ari den pertsona behartuta dago ematera, interesatuak hala eskatzen badio, saleroste eragiketaren erreziboa edo egiaztagiria, honako gutxienezko edukiaz:

- Datu pertsonalak.
- NAN edo AIZ.
- Helbidea.
- Produktua/k
- Prezioa eta data
- Zenbatekoa.



- Sinadura
- n) Esleitutako postutik kanpora ezin dira saldu gauzak, ez eta geralekuen artean pasabideetako zirkulazio librea oztopatu ere.
 - ñ) Merkatal jardueran aritzearen ondoriozko hondakinak, ontzikiak, inguratzekoak eta gainerako hondakin guztiak xede horretarako kokatutako kontainerretan utzi behar dira. Kontenedore hauen kokapena ezin izango da aldatu kalean saltzearen ondorioz.
 - o) Postuaren instalazioak kontserbazio egoera onean mantendu beharko dira.
 - p) Postu titularrek konpondu behar dituzte sor daitezkeen kalteak zoladuran, zuhaitzetan, kaleko argietan edo izaera berdineko gainerakoetan.
 - q) Erantzukizun zibileko aseguru poliza bat itundu beharko dute jarduera instalazioek hirugarrenei sor liezazkiekeen kalteak estaltzeko.
 - r) Debekatuta dago saltzen diren gauzen eskaintza boza goratzeko aparailu akustikoak erabiltzea.
 - s) Udal baimenen titularrak obligatuta daude Ordenantza honen eta indarreko araudiaren aplikazioan udal agintari edo funtzionarioek emandako aginduak betetzeko kalean saltzea baimentzen den azoken funtzionamendu onerako.
 - t) Indarreko legediak kalean saltzen aritzeko ezartzen dituen edo etorkizunean ezarri ditzakeen baldintzak eta betebeharrak udal baimenen jabeen aplikaziokoak izango zaizkie, arauok zaintzea eta betetzea eskumendun administrazio publikoetako dagozkion organoek egingo dutelarik.
- 2.- Abasto Plazako Ohiko Aldiroko Merkatuan Ordezkarien Batzordea eratuko da, merkatuko postu jabeen artean demokratikoki aukeratua izango dena. Gutxienez hiru eta gehienez bost kide izango ditu eta saiaturik da osaketan merkaturatzen diren salgaien arteko ordezkari zuzena izaten. Merkatuko Ordezkarien Batzordea merkatuk bozeramalea izango da Udalaren aurrean merkatuari dagozkion gaietan konponbideak aurkezten saiatuz.

IV. TITULUA ZEHAPEN ETA ZIGOR-ARAUBIDEA

I. KAPITULUA

Kalean saltzearen zaintza eta ikuskapena

26. Artikulua:

- 1.- Udalak zaindu eta bermatuko du Ordenantza honetan erabakitako betebeharrak behar diren bezala betetzen diren eta kalean saltzearen arloan unean indarrean dauden higiene, osasun eta segurtasun arauak, beste administrazio publikoen aldetiko euren eskumenen jardueraren kalte barik.
2. Udalak, bere zaintza funtzioen jardunean, ikuskatu ahal izango ditu produktuak, jarduerak eta instalazioak, bai eta saltzaileei eskatu horien inguruko behar izango litzatekeen informazioa.



- 3.- Saltzen jarritako produktuak kontsumitzaile edo erabiltzaileen osasun edo segurtasunerako arriskugarriak direnean, kalitate edo kantitatean iruzurra suposatzen dutenean, faltsutuak direnean, ezaugarririk gabe daudenean edo merkaturatzeko gutxienezko baldintzak betetzen ez dituztenean espedientea zabaltzea aginduko duen agintaritzak erabaki ahal izango du zuhurtziazko eskuhartzea, arauteri ezargarrian erabakitakoaren arabera.

II. KAPITULUA.

Zehapen prozedura.

27. Artikulua:

Eusko Jaurlearitzako organoen zehapen eskumenaren kalte barik, Ordenantza honetan xedatuarekiko arau-hausteak Udalak berak zehatu eta zigortuko ditu.

28. Artikulua:

Ordenantza honetan aurreikusitako arau-hausteei zigorrak eta isunak ezartzeko eta zigortzeko ebazpenen aurka errekurtsioak ipintzeko prozedura, indarrean dagoen administrazio prozedura arloko zigortzeko eta xehapen araudian erabakitakoa izango da.

29. Artikulua:

Kalean saltzen aritzeko udal baimenen jabeek erantzungo dute Ordenantza honetan erabakitakoaren aurka salmenta postuan eurek, edo zerbitzuak prestatzen dituzten euren senidekoek edo soldatapekoek egindako arau-hausteengatik.

III. KAPITULUA

Hutsegite eta zigorrak.

30. Artikulua *Arau-haustek.*

- 1.- Arau-hausteak sailkatzen dira honela: oso larriak, larriak eta arinak.
- 2.- Arau-hauste arintzat hartuko da Ordenantza honetan dauden erabakien ez betetze soila, ekonomi izaerako eragin zuzenik gabekoa eta kontsumitzaileentzako kalterik gabekoa, beti eta arau-hauste larri edo oso larritzat sailkatuta ez badago.
- 3.- Arau-hauste larritzat joko dira:
 - a) Arau-hauste arinetan berrekitea.
 - b) Ekonomia izaerako eragin zuzena dutenak edo kontsumitzaileei kalte egiten dietenak.
 - c) Osasun arloko arau-hauste larriekin batera egiten direnak.
 - d) Kalean saltzen aritzea derrigorreko udal baimenik gabe.
 - e) Ordenantza honetan erabakitakoaren zaintza jardunetan aritzen direnean udal agintari edo agenteei eskatutako datuak emateari uko egitea, horretarako erresistentzia jartzea, edo informazioa ez ematea. Halaber ere, ematea informazio ez zehatza, ez osoa edo faltsua, ukoa edo erresistentzia berrekindakoa denean edo agintari edo bere agenteenganako bortxa, mehatxu edo beste edozein presio motarekin batera datorrenean.



- f) Arau-haustea suposatzen duten jarduerak bertan behera uzteko eskaera ez betetzea.
 - g) Baimendu gabeko produktuen salmenta.
- 4.- Arau-hauste oso larritzat joko dira ondokoak:
- a) Arau-hauste larriak berrikitan egitea.
 - b) Arau-hauste oso larriekin batera egiten direnak edo pertsonen segurtasunerako arrisku larria suposatzen dutenak.
 - c) Kontsumitzaileentzako kalte larriak sortzen dituztenak.
 - d) Diru irabazi asmo proportziorik gabea lortzen saiatzeagatiko arau-hauste larriak edo ordenu ekonomikoa era larrian aldatzen dituztenak.

31. Artikulua: *Zehapenak, Zigorrek eta Isunak.*

- 1.- Kontsumitzaile eta erabiltzaileen babeserako lege arloan aurreikusita dagoenaren aplikazioaren kalte barik, arau-haustek zigortu egingo dira Merkataritza Jarduerari buruzko maiatzaren 27ko 1994/27 Legean xedatutakoaren arabera, Udalarri dagokiolarik arau-hauste arinak eta larriak zigortzea, honako koadro honen arabera:
- a) Arau-hauste arinak zigortuko dira honako hauekin:
 - a1) Ohartarazpena.
 - a2) Edota 25.000,00 Eurorainoko isuna.
 - b) Arau-hauste larriak zigortuko dira honako hauekin:
 - b1) 150.000.00 Eurorainoko isuna.
 - b2) edo/eta saltzeko baimenaren galeraz.

- 2.- Arau-hauste oso larriak Eusko Jaurlaritzako eskumendun sailek zigortuko dituzte.

32. Artikulua: *Zigorrarekin baterako neurri osagarriak.*

Espedienteari buruzko ebazpena hartu behar duen agintaritzak erabaki ahal du, zigorrarekin batera doan neurri moduan, faltsututako, gezurrezko, ez identifikatutako edo merkaturatzeko erabakitako gutxienezko betebeharrak betetzen ez dituzten salgaien bahitura.

33. Artikulua: *Zigorren graduazioa.*

Dena delakoan, zigorren graduaziorako kontutan hartuko da saldutako produktuen izaera, sortutako kalteak, arau-hauslearen borondatezkotasuna edo berrekitea eta arau-haustek gizaratean duen oihartzuna.

34. Artikulua: *Preskripzioa.*

- 1.- Ordenantza honetan aurreikusitako arau-hauste eta zigorrak preskribatu egingo dira: arinak badira, sei hilabetera; urtebetera larriak badira eta bi urtera oso larriak badira.
- 2.- Arau-hausteen preskripzio-epea arau-haustea burututako egun beretik zenbatzen



hasiko da.

Preskripzioa etenda geratuko da, interesduna jakitun dagoelarik, zigor prozeduraren bat hasten bada, preskripzio-epea berriro hasiko delarik zigor espedientea geldirik egon bada hilabete bat baino gehiago ustezko arduradunari ezin leporatu zaion arrazoiren bategatik.

- 3.- Zigorren preskripzio-epea hasiko da zenbatzen zigorra ipinitako ebazpenak finkotasuna lortzen duen egunaren biharamunetik hasita.

Preskripzioa etenda geratuko da, interesduna jakitun dagoelarik, burutzapen prozeduraren hasieratik, preskripzio-epeak berriro jarraituko duelarik prozedura geldirik egon bada hilabete bat baino gehiago ustezko arau-hausleari ezin leporatu zaion arrazoiren bategatik.

IV. TITULUA

ARAUDI EZARGARRIA ETA ORDENANTZAREN GARAPENA

I. KAPITULUA

Araudi ezargarria eta Ordenantzaren garapena.

35. Artikulua:

Aplikaziokoa da Autonomia Erkidegoan indarrean dagoen Merkataritza Jardueraren Araudia eta gai honetan ebatzi daitezkeen Arauak xedapen oro aurreko araudia osatu eta garatzeko, bai jardueraren aspektu sanitario, fiskal edo bestelako ordenuetakoetan; Erkidegoko Araudirik ezean, ordezeko izaeraz, aplikaziokoak izango dira unean uneko Estatuko Ordenamendu Juridikoan indarrean daudenak.

Orobat, aplikaziokoak izango dira bere eskumenen barruan Udal Ordenantza Fiskalak eta Udalak erabakitako honako Ordenantza honen maila bereko zein gutxiagoko beste edozein erabaki.

36. Artikulua:

Udalak, Alkatetzaren bitartez, beharrezko iritzitako ebazpenak hartuko ditu Ordenantza hau osatzen duen artikulatuaren interpretazio edo azalpenerako, zein garapenerako, azoken funtzionamendua eta bertan egiten den kaleko salmentarako arauak emango ditu.

XEDAPEN IRAGANKORRAK

Aldaikorreka Plaza izeneko lekuan ostegunetako ohiko azoka egiteko hasiera eguna erabaki da izatea 2009ko urriaren 1a. Xede horretarako, Alkatetza-Lehendakaritzak Dekretua ebatziko du dagozkion esleipen baimenak emanez, adieraziz sorrera postua eta Aldaikorreka Plazan izango duen xede postua, domeinu publikoaren okupazioagatiko tasengatik dagokion Ordenantza Fiskalean erabakitakoa ordaindu behar izanik. Saltoki eta postu libreak esleitu egingo dira Ordenantza honetan araututako sistema orokorraren bitartez.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Ordenantza honek indarra hartzen duenetik aurrera ezabatuta geratzen dira hierarkia berdin eta txikiagoko ebazpenak, orain onartu den testuarekiko bateraezin badira, kontraesanean geratzen badira edo aurka badaude.

Laudio



Llodio

OBRA, ZERBITZU ETA MANTENTZE-LANEN ARLOA
Tlf.: 94 403 4860 / Fax.: 94 403 4754

ÁREA DE OBRAS, SERVICIOS Y MANTENIMIENTO
obras@audiokoudala.net

Herriko Plaza
01400 Laudio / Llodio (Araba / Álava)
www.laudiokoudala.net

AZKEN XEDAPENA

Ordenantza honek indarra hartuko du Toki Araubidearen Oinarriak Arautzeko apirilaren 2 7/1985 Legeko 70.2 artikuluan ebatzitakoaren arabera, ALHAOn bere testu osoa argitaratutako egunaren biharamunean.



DOKUMENTU ERANTSIA

SALBUETSITAKO PERIMETRO URBANOA.

Ordenantza honetako 9 artikuluan aurreikusitakoarekin bat, ezin izango da aritu kalean saltzen dokumentu edo agiri honetan definitzen den Perimetro Urbano Salbuetsian.

Debekatuta dago kalean saltzea udalerrri osoan, honen ondoan doan plano kaletegiaren arabera, salbu eta:

- a) **Abasto Plazan ostegunetako ohiko aldiroko Azokari buruz**, ikus Aldaikoerreka Plaza, Herriko Plaza eta Elizako Portikopeko planoak
- b) **Aldian aldiko azokei dagokienez**, debekatuta dago kalean saltzea, udalerrriaren termino osoan, salbu eta Alkatetzak emango dituen baimen zehatzak, jaiak, feriak, ekitaldiak direla eta.
- c) **Kamioi-dendan edo kokapen finko desmuntagarridun postuan saltzeari dagokionez**, debekatuta dago udalerrriko termino osoan kamioi-dendan edo kokapen finko desmuntagarridun postuan saltzea, salbu eta udalerrriko biztanleei baimendu egin ahal zaien gaztaina erreen, txurroen eta antzeko postuen ohiko eta errotutako izaeragatik..



IRAGARKIA

Laudio Udalerrian kaleko salmenta arautzen duen Ordenantzaren behin betiko onarpena.

Laudio Udalbatzarrak, 2009ko uztailaren 27an egin zuen ohiko Osoko Bilkuran, hasierako izaeraz onartu zuen “Laudio Udalerrian Kaleko Salmenta Arautzen duen Ordenantza Aldatzea”ren hasierako onarpena. Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 49. artikuluan xedatutakoarekin bat, dagokion iragarkia argitaratu egiten zen 2009ko abuztuaren 7ko 89. zenbakia duen ALHAOn, 30 eguneko lan eguneko epea eskainiz erreklamazio eta iradokizunak aurkeztu ahal izateko.

Finituta erreklamazio eta iradokizunak aurkeztu ahal izateko epea 2009ko irailaren 14 egunean eta ez denez inolako alegaziorik aurkeztu, apirilaren 2ko 2/1985 Legeko 49. artikulua xedatuta dakar behin betiko onartutzat joko dela ordura arte behin behinekoa izandako erabakia, horren berri Osoko Bilkurari eman behar izanik.

Edozein kasutan ere, eta lege testu bereko 70.2 artikuluan xedatutakoarekin bat, behin Ordenantza behin betiko onartuta dagokeenean, iragarki honekin batera, oso-osorik argitaratuko da ALHAOn eta aipatutako Legeko 65.2 artikuluan aurreikusitako hamabost lan eguneko epea igaro behar dira derrigor, indarrean sartzeko.

Laudio, 2009ko irailaren 11an.- Alkatea, Jon Karla Menoio Llano.